



DANI BLANCO

**Garbiñe
Biurrun
Mancisidor**



EHUKO
IRAKASLEA,
EPAILEA

Krisia: politikaren porrota eta gizarte zibilaren gorakada

PERTSONA ETA GIZA talde asko ari dira bereziki pairatzen hainbestetan aipatzen ari garen krisi ekonomikoaren ondoriozko larrienak. Langabezia, prestazio sozialen murrizketak, eta azkenean, etxe desjabetzeak dira gure eguneroko ogia.

Finantza krisia hasi zenez geroztik gizarteak espero zuen sistema politikoa- ren erantzun sakona eta erabatekoa. Hale- re, ez zen horrelakorik gertatu, eta, nahiz eta sistema politikoari eta botere publiko- ei krisiari aurre egitea eskatu zitzaie- n, beharbada, irmotasun eta konfiantza gehiegirik gabe egin zen eskaera hori.

Gizartearen jarrera apalak eta sistema politikoaren aitortutako “ezintasunak” krisiaren eskuetan utzi gaituzte. Hori

tasuna eta murrizketa sozialak. Estatuak ez du aldatu krisiaren kausa bat bera ere, eta denak bere horretan jarraitzen du. Aldiz, finantza sistema salbatzen ari da horren truke eska zitekeen erantzukizuna exijitu gabe. Hona hemen sistema politi- koaren porrota: krisiaren kausak ez alda- tzea; egoera larrian dauden pertsonen eskubideak murriztea, eta batez ere, siste- ma ekonomikoaren aurrean etsitzea eta bere ezintasuna onartzea.

Zorionez, gizartearen ez da ikusi ez pasi- botasunik ez ezintasunik. Arazo larrienei aurre egiteko prest agertu da gizartea: elkartasun mugimendu berriak sortu dira, kaleak okupatu dira eta guztiz ahaltsu diren finantza erakundeen aurrean ez du burua makurtu. “Haserretuen” mugimen- duaren filosofiari jarraituz, benetako demokrazia partehartzailea aldarrikatu, finantza eta ekonomia sistemaren ahalme- na errefusatu eta herriaren ahotsa entzun dadila exijitu ditu.

Hemen dago gizartearen gorakada. Gizarte “haserretuak” erakutsi du guztiz posible dela honelako “matxinada” anto- latzea eta erantzuna jasotzea. Gizarte honek erantzun du: alde batetik, finantza erakunde- i aurre egin die, euren jarrera salatuz, euren erabakien ondoriozko larrienak argi erakutsiz; bestalde, botere publiko- ei erantzun sakona eskatu die: hondamen hau gelditzea eta neurriak hartzea pertsona guztion duintasuna bermatzeko.

Erantzuna ezagutzen dugu: finantza erakundeek tinko eutsi diote euren posi- zioari; estatuak gainetik kendu nahi izan du arazoa erantzun apal-apal eta guztiz ez eraginkorra emanaz. Bigarren aldiz, siste- ma politikoak etsi egin du ahaltsuen aurrean. Hona hemen bere bigarren porrota.

Ez dakit gizarte hau noiz arte konfor- matuko den, baina argi dago udazken honek ekarri digula itzaropen izpirik. Ea izpi horrek sistema politiko- a argitzen duen eta era- kusten dion denon onerako benetako erantzuna zein den. ■



Hona hemen sistema politikoaren porrota: krisiaren kausak ez aldatzea; egoera larrian dauden pertsonen eskubideak murriztea, eta batez ere, sistema ekonomikoaren aurrean etsitzea eta bere ezintasuna onartzea

dena lehertu aurretik, sistema politikoak ez zuen nahi izan krisiaren jatorrian zeu- den arrazoiei aurre egin, eta krisia agertu eta gero, ez du jakin erantzuten pertsonen defentsan.

Alderantziz, denok –botere publikoek barne, noski– bagenekien higiezinen sek- torea “burbuila” artifizialean oinarriturik zegoela. Bagenekien horren atzean finan- tza erakundeen negozio potoloa zegoela eta horren ifrentzua herritarron gain-zor- petzea zela. Kausak argi daude: erosi nahi genituen etxebizitzaren tasazioak edo balo- razioak puztea, mugarik gabeko maile- guak ematea eta, oinarrian, estatuaren pasibotasuna.

Baina krisiak “burbuila” leherrarazi duenean, estatuaren jarrera ez da aldatu. Sistema politikoaren erantzuna ildo baka- rretik joan da: gastu publikoaren zorroz-